

# BILBON ESKOLATIK ANTZERKIRA 2023

**Bilboko haurrentzako programazio eszenikoa**
Programación escénica para niños y niñas de Bilbao

MITUSU
HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA
PROGRAMACIÓN ESCENICA PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES

B
Bilbao

# IKUSLEA IZATEAREN ARTEA

Etengabe aldatzen ari den mundu honetan, non gizarte-, kultura- eta ingurumen-erronkek inguratzen gaituzten, bestelako begirada bat garatzeko beharra sortzen da, agerikoa dena gainditu eta emozioetan barneratzeko kapaza, entretenimendu hutsa gainditu eta sentimenduan barneratzeko gai dena.

Elkarrekin lan egiten dugunean gure haurren begiradak Begirada Kritiko eta Sortzaile bihurtzeko, guztiok daukagun tresnarik onena ematen diegu bizi garen mundua baloratzeko eta onerako aldatzeko.

Arte Eszenikoetatik ulertzen dugu lehen urratsa imajinatzea dela, Jacinto Benavente antzerkigile eta Literaturako Nobel saridunak zioen bezala: “Imajinatzea sortzea da. Gutxienekoa da gauzak gugandik kanpo ikustea; garrantzitsuena gugan sentitzea da. Ikusten dena bistatik galtzen da; imajinatzen dena bizitza osorako bizitzen da beti, betierekotasun osorako.”

Hezkuntza Komunitaterako programatzen dugunean, mundua eraldatzeko ahalmena duten herritarren adimenetara eta sentimenduetara iristen garela imajinatzen dugu, eta bizipen inspiratzaileak eman nahi dizkiegu.

# EL ARTE DE SER ESPECTADOR-ESPECTADORA

En un mundo en constante cambio, donde los desafíos sociales, culturales y medioambientales nos rodean, surge la necesidad de desarrollar una mirada distinta, capaz de transcender lo evidente y adentrarse en las emociones, capaz de transcender el mero entretenimiento y adentrarse en el sentimiento.

Cuando trabajamos conjuntamente para transformar las miradas de nuestros niños y niñas en Miradas Críticas y Creativas, les dotamos de la mejor herramienta que poseemos todos y todas para valorar y cambiar para bien el mundo que habitamos.

Desde las Artes Escénicas entendemos que el primer paso es imaginar, como decía el dramaturgo y Premio Nobel de Literatura, Jacinto Benavente: “Imaginar es crear. Lo de menos es ver las cosas fuera de nosotros; lo importante es sentirlas en nosotros. Lo que se ve se pierde de vista; lo que se imagina se vive siempre para toda la vida, para toda la eternidad”

Cuando programamos para la Comunidad Educativa imaginamos llegar a las mentes y a los sentimientos de aquellos ciudadanos y ciudadanas que tienen el potencial de transformar el mundo y queremos que tengan vivencias inspiradoras.

# IKUSLEAREN PRESTAKUNTZARAKO IRADOKIZUNAK

Orain arte egin dugun bezala, esperientziari etekin pedagogikoa ateratzeko aukera ematen diegu antzokira etorritako irakasleei. Horretarako, ikuslearen prestakuntzarako gida-didaktiko batzuk lantzen dira; horietan, hautatutako ikuskizunari buruzko gogoetak eta informazioak biltzen direlarik. Era berean, ariketa batzuk proposatzen dira, emanaldira joan aurretik edota ondoren ikasgelan egitekoak. Gainera, gidaliburuan ikusleak bere zirrarak adierazteko iradokizunak ere jasotzen dira. Eskatuz gero, posta elektronikoaz bidaliko dira eta web orrialdean ere egongo dira eskuragarri.

**www.mitusu.net: hemen behar duzun informazioa, material pedagogikoa eta ikuskizunetara joateko sarreren erreserbarako fitxa aurkituko dituzu.**



# SUGERENCIAS PARA LA FORMACIÓN DE LAS Y LOS ESPECTADORES

Continuamos posibilitando al profesorado que acude al teatro un acercamiento pedagógico a la experiencia. Para ello, se elaboran unas guías de formación del espectador y espectadora que incluyen reflexiones e informaciones del espectáculo seleccionado y propuestas de actividades para realizar en el aula antes y/o después de asistir a la representación, así como sugerencias que permitan la expresión de las emociones. Se enviarán por email a quien lo solicite y estarán también disponibles en la web.

**www.mitusu.net: aquí encontrarás la información que necesitas, el material pedagógico y la ficha para reservar entradas para los espectáculos.**



**LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLORAKO IKUSKIZUNA**
ESPECTÁCULO PARA 3er CICLO DE EDUCACIÓN PRIMARIA

**HITZIK GABE - SIN TEXTO**

AZKUNA ZENTROA | **AZAROAK 21 NOVIEMBRE** | 9:45 / 11:30 | 40'

**MARIE DE JONGH Y DOOS COLECTIVO-EK**
AURKEZTEN DUTE / PRESENTAN:

# ESNA

ZUZENDARIA / DIRECTOR:
**JOKIN OREGI**
KOREOGRAFIA / COREOGRAFÍA:
**EVA GUERRERO**
ANTZEZLEAK / INTÉRPRETES:
**DENIS MARTÍNEZ,**
**OLAIA VALLE**



Norbaitek beste bat dela irudikatzen du, bere larruan jartzeko ariketa egiten du, gero bizitako esperientziak aberastuta itzultzeko. Jolasaren bidez animalia, lorea, jostailua, ura edo haizea bera irudikatzen du.

Ikuskizun honek balioan jartzen du pertsonek beren gorputzekin edo irudimenarekin esperimentatzeko, rol desberdinak jokatzeko, munduarekin modu desberdinetan elkarreragiteko, harremanetan arakatzeko, probatzeko eta bilatzeko duten gaitasuna. Azken batean, hainbat aukera ikertzeko eta horietan sakontzeko gaitasuna. Gizarte mesfidati batean balio hori aldarrikatzeko beharra ikusten dugu, dena presaka etiketatzeko joera baitu. Horregatik, errakuntzarako eta porroterako eskubidea eskatzen dugu, bizitza bere sakontasun osoan ulertu nahi badugu. Eta batez ere, arnasa eskaini nahi dugu.

ESNA antzerkia eta dantza da, dantza delako, baina baita antzerkia ere. Antzezleak dantzariak dira, baina Jokin Oregi antzerkian espezializatuta dago eta Eva Guerrerok denbora luzea eman du dantzaren heterodoxian arakatzen.

Alguien imagina ser otra, hace el ejercicio de ponerse en su piel, para luego volver enriquecida por la experiencia vivida. Por medio del juego, representa ser un animal, una flor, un juguete, el agua o el mismísimo viento.

Este espectáculo pone en valor la capacidad de las personas de experimentar con sus cuerpos o su imaginación, de jugar diferentes roles, de interactuar con el mundo de formas diversas, de indagar en las relaciones, de probar, de buscar. En definitiva, la capacidad de investigar diferentes opciones y profundizar en ellas. Vemos la necesidad de reivindicar este valor en una sociedad desconfiada, que tiende a etiquetarlo todo y a toda prisa. Por ello, reclamamos el derecho al error, y también al fracaso, si deseamos entender la vida en toda su profundidad. Y sobre todo, queremos ofrecer aliento.

ESNA es teatro y danza, porque es danza, pero también teatro. El dúo de intérpretes son bailarines, pero Jokin Oregi está especializado en teatro y Eva Guerrero ha pasado mucho tiempo hurgando en la heterodoxia de la danza.

**HAUR HEZKUNTZARAKO IKUSKIZUNA**
ESPECTÁCULO PARA EDUCACIÓN INFANTIL

**HITZIK GABE - SIN TEXTO**

AZKUNA ZENTROA | **AZAROAK 22 NOVIEMBRE** | 9:45 / 11:30 | 50'

**TELONCILLO TEATRO-K**
AURKEZTEN DU / PRESENTA:

# BALTASAR JAUNAREN ANIMALIAK

EGILEA ETA ZUZENDARIA / AUTOR Y DIRECTOR:
**CLAUDIO HOCHMAN**

ANTZEZLEA / INTÉRPRETE:
**JUAN LUIS SARA**



Teloncillo Teatrok, umeentzako antzezlanak egiten dituen eskarmenturik handienetariko Espainiako antzerki-taldeak, "Baltasar jaunaren animaliak" obra aurkezten digu. Bertan, marru egiten duen katu batekin, miauka egiten duen txakur batekin, kua-kua egiten duen behi batekin eta zaunka egiten duen ahate batekin topo egiten duen gizon baten istorioa kontatzen digute.

Onomatopeiak, irudiak eta musika protagonista diren hitzik gabeko ikuskizuna. Hiru eta sei urte bitarteko umeentzako ikuskizuna dugu, non haurrak erakartzen dituzten gaiak jorratuko ditugun, hala nola, animalien mundua, garraioak, koloreak, letrak... dena umore eta jokoen bitartez.

Komunikazioaz eta harremanak egiteko moduez arituko gara, baita, hizkuntza komunik eduki gabe, besteon bihotzera hel gaitezkeenaz ere.

Geure buruari eta ingurukoei begiratuz, bakoitzaren nortasunaz -nor garen eta nolakoak garen- hausnarraraziko digu ikuskizun honek. Estetika ausart, harrigarri eta dibertigarria duen ikuskizuna da, non umeek ezustekoen magiaz gozatzeko aukera izango duten.

Beatriz Actis-en ipuin batetan oinarrituta, Teloncillo Teatro-k bere narrazioa eraiki egin du eta, oraingoan ere, ikuslea harritzeko asmoz forma eta edukia bat egiten duten proposamen baten alde egin du.

Teloncillo Teatro, una de las compañías más veteranas del Teatro para la Infancia en el panorama nacional, nos presenta su creación "Los animales de Don Baltasar". En ella, cuenta la historia de un hombre que se encuentra un gato que muge, un perro que maúlla, una vaca que hace cua-cua y un pato que ladra.

Un espectáculo sin palabras, donde las onomatopeyas, las imágenes y la música son protagonistas. Un espectáculo pensado para niños y niñas de tres a seis años, donde nos sumergimos en las temáticas que les atraen: el mundo de los animales, los medios de transportes, los colores, las letras... todo en un marco lleno de humor y de juego.

Hablaremos de la comunicación y de las mil maneras de hacer vínculos. De cómo, ante la ausencia de un idioma común, podemos, igual, llegar al corazón de las y los otros.

Un espectáculo para pensar acerca de la identidad, de quiénes y cómo somos, mirándonos y mirando a las demás personas. Un espectáculo hecho con una búsqueda estética arriesgada, impactante y divertida donde las y los niños van a poder disfrutar de la magia de lo imprevisible.

A partir del cuento de Beatriz Actis, Teloncillo Teatro construye su propia narrativa, apostando, una vez más, por una propuesta donde la forma y el contenido se dan la mano para sorprender a las y los espectadores.

**LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. ZIKLORAKO IKUSKIZUNA**
ESPECTÁCULO PARA 1ER Y 2º CICLO DE EDUCACIÓN PRIMARIA

**EUSKERAZ**

AZKUNA ZENTROA | **AZAROAK 23 NOVIEMBRE** | 9:45 / 11:30 | 50'



**YARLEKU-K**
AURKEZTEN DU / PRESENTA:

# 104. HAURRA

EGILEA / AUTORÍA:
**JOKIN OREGI, YARLEKU ANTZERKIA - TEATRO**
ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN:
**JOKIN OREGI**
ANTZEZLEAK / INTÉRPRETES:
**EVA AZPILIKUETA,**
**LAURA VILLANUEVA**

“104. Haurra” umezurztegi batean dago, adoptatua izateko irrikitan. Egoera berean dauden beste neska batzuek bezala, egun osoa ematen du arropak josten, jende dotoreak erabiliko dituen jantziak egiteko. Egun batean, beste neskato bat agertzen da, eta badirudi ez datorrela bat “104. Haurrak” lanagatik duen ilusioarekin, jakin badakielako umezurztegian beraietaz aprobetxatu egiten direla eta esplotatzen dituztela. Harrera-familiak hara eta hona ibiltzen dira, baina inork ez du “104. Haurra” aukeratzen.

Haurren esplotazioa, nortasuna, elkarrekiko laguntzaren garrantzia eta egoera zailei aurre egiteko sormenak duen balioa jorratzen dira ikuskizun honetan. Adiskidetasunak eta amets partekatuek mundu berri bat sortzeko ematen duten indarra islatzen du istorioak.

David Lainez Aguirre Yarleku antzerki taldearen sortzailea da, kalitatezko ikuskizunen ekoizpenean eta banaketan ibilbide profesional zabala duena eta giza antzerkia garatu nahi du, hau da, benetan merezi duten gaiak ukitu, landu eta taularatu.

“La Niña 104” se encuentra en un orfanato deseando ser adoptada. Al igual que otras niñas en su misma situación, pasa los días cosiendo retales para hacer con ellos trajes que transformen a personas desnudas en gente elegante. Un buen día, llega otra niña que no parece compartir la ilusión de “La Niña 104” por el trabajo, puesto que es consciente de que el mismo orfanato es una maquila en la que se aprovechan de ellas. Las familias de acogida van y vienen, pero ninguna escoge a “La Niña 104”.

Una historia que trata la explotación infantil, las identidades, la importancia del apoyo mutuo y el valor de la creatividad para afrontar situaciones difíciles. Una obra en la que la amistad y el sueño compartido dan fuerzas para crear un mundo hacia el que volar.

David Lainez Aguirre es fundador del grupo de teatro Yarleku, con una amplia trayectoria profesional en la producción y distribución de espectáculos de calidad y que pretende desarrollar el teatro humano, es decir, tocar, trabajar y poner en escena los temas que realmente merecen la pena.

**LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLORAKO IKUSKIZUNA**
ESPECTÁCULO PARA 1ER CICLO DE EDUCACIÓN PRIMARIA

**HITZIK GABE - SIN TEXTO**

CENTRO MUNICIPAL OTXARKOAGA UDALTEGIA | **ABENDUAK 1 DICIEMBRE** | 9:45 / 11:30 | 45'

**ZIG ZAG DANZA-K**
AURKEZTEN DU / PRESENTA:

# FORMAK

KONTZEPTUA, SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA
CONCEPTO, CREACIÓN E INTERPRETACIÓN:
**ESTRELLA GARCÍA,**
**MIGUEL QUIROGA**



FormaK lan harrigarria da, non mugimenduak, objektuen manipulazioak eta efektu bisualek eskua ematen duten ezohiko ikuskizun bat sortzeko. Ikusleak haien aurrean aurkezten eta eraldatzen diren irudien bidez garraiatzen dira, eta etengabe aldatzen den unibertso iradokitzaile batean sartzen dira.

Proposamena giza gorputzaren atal desberdinak deskonposatzetik abiatzen da eta, berriz ere, atal horietatik abiatuta osatzen du, hainbat bolumenen eta materialen laguntzarekin, magiarekin eta argi beltzak eta gorputzaren mugimenduan oinarrituta sortutako formek eskaintzen dizkiguten aukerekin jolastuz.

Eraldatzen doazen eszenen bilakaerak irakurketa eta interpretazio irekiak ditu eta, horrela, pertsona bakoitzak bere irakurketa aterako du, ikuspegi ireki eta aske bat sustatuz eta, aldi berean, espiritu kritikoa eta irudi plastikoen abstrakziorako eta interpretaziorako gaitasuna sustatuz.

Forma biziak, zirkularrak, estatikoak, definituak, iradokiak, errealak, berriak, lausoak, aldakorrak, mugikorrak; formak azken finean, errealarekin eta ilusioarekin jolasteko aukera ematen digutenak; «dena dena da eta ezer ez da dirudiena».

FormaS es un sorprendente trabajo donde el movimiento, la manipulación de objetos y los efectos visuales se dan la mano para crear un espectáculo inusual. Los y las espectadoras son transportadas a través de las imágenes que se presentan y transforman ante ellas, adentrándolas en un sugerente universo que cambia de forma constante.

La propuesta parte de descomponer las diferentes partes del cuerpo humano, componiendo de nuevo a partir de ellas con la ayuda de diferentes volúmenes y materiales, jugando con la magia y las posibilidades que nos ofrecen la luz negra y las formas creadas a partir del movimiento del cuerpo.

La evolución de las escenas que se van transformando tienen una lectura e interpretación abiertas con lo que cada persona sacará su propia lectura fomentando de esta forma una visión abierta y libre, a la par que se fomenta el espíritu crítico y la capacidad de abstracción e interpretación de imágenes plásticas.

Formas vivas, circulares, estáticas, definidas, sugeridas, reales, nuevas, difusas, cambiantes, móviles; formas al fin y al cabo, que nos permiten jugar con lo real y la ilusión; «todo es lo que es y nada es lo que parece».

**HAUR HEZKUNTZARAKO IKUSKIZUNA**
ESPECTÁCULO PARA EDUCACIÓN INFANTIL

**EUSKERAZ**

CENTRO MUNICIPAL OTXARKOAGA UDALTEGIA | **ABENDUAK 5 DICIEMBRE** | 9:45 / 11:30 | 45'

**DA.TE DANZA-K**
AURKEZTEN DU / PRESENTA:

# ZEIN DA NIRE IZENA...?

KOREOGRAFIA ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN COREOGRÁFICA:
**OMAR MEZA**
ANTZEZPEN ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN TEATRAL:
**ROSA DÍAZ (LA ROUS)**
ANTZEZLEAK / INTÉRPRETES:
**MARÍA JOSÉ CASADO, GONZALO MORENO**



Haur bakoitzaren nortasuna bidean zehar helduko da, eta haren izena abiapuntua baino ez da izango. Edozer gauza edo pertsona izatera jolasten gara, dibertigarria da…

Trena den sofa bat, ispilu bihurtutako alfonbra bat, mugitzen den belar-mendi bat, mitxoleta lanparak eta... zu eta ni! Zein da zure izena? Bai, zuk, nola duzu izena? Sartu gure ikuskizunean eta dibertitu.

Haurrak mugimenduari lotutako hizkuntza ezagutuko du, eta horrek, argiarekin eta musikarekin batera, familiako giro dibertigarrian murgilduko du ikusle txikia, haren arreta bereganatuz, azaleko efektuetara jo beharrik gabe. Objektu bakoitzak ikusten dugunaren oso erabilgarritasun eta forma desberdina izan dezake, denok irudika dezakeguna bihur gaitezke, globo bat, besaulki bat, zu zeu. Istorio honetan dena jolas bat da, zure izenaren bilaketa oso entretenigarria izango da, begiratzen jolastu, jolasten begiratu.

La identidad de cada niño o niña se madurará durante el camino y su nombre solo será el punto de partida. Jugamos a ser cualquier cosa o persona, es divertido...

Un sofá que es un tren, una alfombra convertida en espejo, una montaña de césped que se mueve, lámparas de amapola y... ¡tú y yo! ¿Cuál es tu nombre.? Sí, tú, ¿cómo te llamas? Entra en nuestro espectáculo y diviértete, ¿acaso importa cómo te llames?

El niño o la niña reconocerán el lenguaje ligado al movimiento y esto, unido a la luz y la música, sumergirá a las y los pequeños espectadores en un clima familiar y divertido, captando su atención, sin necesidad de recurrir a efectos superficiales. Cada objeto puede tener una utilidad y forma muy distinta a la que vemos, todos y todas podemos convertirnos en lo que imaginemos: en un globo, en un sillón, en ti... En esta historia todo es un juego, la búsqueda de tu nombre será muy entretenida; juega a mirar, mira jugando.

# ARGIBIDEAK

## SALNEURRIA

Sarrerak 5,50 euro balio du. Antolakuntzan esku hartu duten erakundeek jarritako diruz lagunduta dago prezioa, izan ere kostu erreala ezarritako prezioaren gainetik dago. Irakasleek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

## ERRESERBAK

Irailaren 18tik 29era (9:00etatik 15:00etara).

Telefono bidezko erreserba: antolatzaileekin harremanetan jarri: 672 689 548

Erreserbak online: gure web gunean (www.mitusu.net) dagoen formularioa bete.

Antolatzaileok ikuskizunetara joateko aukera  baieztatu beharko dugu mezu elektroniko baten bidez.

## SARREREN ORDAINKETA

Ikastetxeek sarreren zenbatekoaren %100 sartu beharko dute hamabost egun lehenago.

### KONTU ZENBAKIA

Laboral Kutxa: ES53 3035 0014 66 0140026089

# INFORMACIÓN

## PRECIO

La entrada cuesta 5,50 euros. Este precio está subvencionado por las entidades organizadoras, ya que su coste real es superior al precio establecido. La entrada para el profesorado es gratuita.

## RESERVAS

Del 18 al 29 de septiembre (9:00 a 15:00 h.).

Reservas telefónicas: contactar con la organización: 672 689 548

Reservas on-line: rellenar el formulario que se encuentra en nuestra página web (www.mitusu.net).

La organización confirmará por e-mail la asistencia a los espectáculos.

## PAGO DE ENTRADAS

Los centros deberán efectuar el ingreso del 100% del coste las entradas con quince días de antelación.

### Nº CUENTA

Laboral Kutxa: ES53 3035 0014 66 0140026089

# PROGRAMAZIOA / PROGRAMACIÓN

1. **MARIE DE JONGH Y DOOS COLECTIVO-EK**
AURKEZTEN DUTE / PRESENTAN:

## ESNA

**LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLORAKO IKUSKIZUNA**
ESPECTÁCULO PARA 3er CICLO DE EDUCACIÓN PRIMARIA

AZKUNA ZENTROA

**AZAROAK 21 NOVIEMBRE**

2. **TELONCILLO TEATRO-K**
AURKEZTEN DU / PRESENTA:

## BALTASAR JAUNAREN ANIMALIAK

**HAUR HEZKUNTZARAKO IKUSKIZUNA**
ESPECTÁCULO PARA EDUCACIÓN INFANTIL

AZKUNA ZENTROA

**AZAROAK 22 NOVIEMBRE**

3. **YARLEKU-K**
AURKEZTEN DU / PRESENTA:

## 104. HAURRA

**LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. ZIKLORAKO IKUSKIZUNA**
ESPECTÁCULO PARA 1ER Y 2º CICLO DE EDUCACIÓN PRIMARIA

AZKUNA ZENTROA

**AZAROAK 23 NOVIEMBRE**

4. **ZIG ZAG DANZA-K**
AURKEZTEN DU / PRESENTA:

## FORMAK

**LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLORAKO IKUSKIZUNA**
ESPECTÁCULO PARA 1ER CICLO DE EDUCACIÓN PRIMARIA

CENTRO MUNICIPAL OTXARKOAGA UDALTEGIA

**ABENDUAK 1 DICIEMBRE**

5. **DA.TE DANZA-K**
AURKEZTEN DU / PRESENTA:

## ZEIN DA NIRE IZENA...?

**HAUR HEZKUNTZARAKO IKUSKIZUNA**
ESPECTÁCULO PARA EDUCACIÓN INFANTIL

CENTRO MUNICIPAL OTXARKOAGA UDALTEGIA

**ABENDUAK 5 DICIEMBRE**

# HARREMANAK
## CONTACTOS

**ESTITXU BEISTEGUI**

**672 689 548**

**info@mitusu.net**

**www.mitusu.net**

AZKUNA ZENTROA

**Arriquibar plaza, 4**

OTXARKOAGA UDALTEGIA

**Pau Casals etorbidea, 19**



**ANTOLATZAILEAK** ORGANIZAN

MITUSU
HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA
PROGRAMACIÓN ESCENICA PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES

Bilbao

**DIRULAGUNTZAILEAK** PATROCINAN

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE
inaem
INSTITUTO NACIONAL DE LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**LAGUNTZAILEA** COLABORA

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

**BAZKIDEA** ASOCIADO

BIARGI SAREA